

9/2026 Irizpena, martxoaren 9koa Administrazio-prozedura: «Egintza deuseza ofizioz berrikusteko 1/2025 eskaera, NICDO SLren 18-08-0039 lizitazio-espeditentari lotua, ... jaunak aurkeztua».

Eskatzailea: Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua

Txostengilea: Ana Clara Villanueva Latorre

Interesa: sozietate publikoen egintzak, administrazio-zuzenbidearen mende daudenak, ofizioz berrikusteko eskumena: foru-araudiaren erregulaziorik eza. Erabateko deusezetasuna: kaudimen tekniko eta ekonomikorik eza. Ofiziozko berrikuspenaren mugak: denbora igarotzea eta fede onik ez izatea.

Irizpen honen xedea da «Navarra de Infraestructuras de Cultura y Ocio S.L.» (NICDO) enpresa publikoaren 18-08-0039 lizitazio-espeditentari ofizioz berrikusteko prozedura, zeinaren helburua baitzen «Nafarroako Orkestra Sinfonikoko musika-tresnak eta material orokorra garraiatzeko eta zama-lanak egiteko zerbitzua» gauzatzeko enpresa bat hautatzeko prozesua. Lizitazioa 2018an egin zen, eta kontratua gauzatzeko epea urtebetekoa zen, luzaezina.

Ofizioz berrikusteko prozedura hasi zen interesdunak 2022ko abuztuko idazki baten bidez hala eskatuta, lizitazio-espeditentari emandako ebazpena erabat deuseza zela iritzita, besteak beste, adjudikaziodunak baldintza-agirietan eskatutako baldintzak betetzen ez zituelako. Sozietate publikoak ez zuen ofiziozko berrikuspena onartu, eta, beraz, interesdunak errekurtsioa aurkeztu zuen Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horrek epaia eman zuen, eta sozietatea kondenatu zuen berrikuspen-prozedura izapidetzeraz.

Aztertutako gaietako bat da ea ofiziozko berrikuspenari buruzko arauak sozietate publikoen kontratu-adjudikazioko egintzei aplikatzen ahal zaizkien eta nork duen berrikuspen-ahala baliatzeko eskumena. NICDO sozietate publiko bat da, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuari atxikia (haren tutoretza gauzatzen du) eta botere adjudikatzaila da, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen (KPFL) arabera. Arau horrek kontratuen prestaketa eta adjudikazioa arautzen ditu, eta aukera ematen du bere egintzen kontrako gora jotzeko errekurtsioa aurkezteko dagokion departamentuan, baina ez du berariaz jasotzen ofiziozko berrikuspena, eta horrek hutsune juridikoa sortzen du. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Estatuko Legeak berariaz arautzen du kontratuen arloko ofiziozko berrikuspena (41. artikulua), eta entitate kontratatzailea atxikita dagoen edo haren tutoretza duen departamentuaren titularrari esleitzen dio berrikuspen-ahalmena baliatzeko eskumena, erakunde kontratatzailea administrazio publikoa ez denean. Kontseiluaren ustez, foru-araudian dagoen hutsunea

SPKLn xedatutakoarekin integratu behar da, eta, beraz, Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak behar bezala hartu du bere gain berrikuspen-jarduketa honetarako eskumena.

Deuseztasun-kausari dagokionez, eskatzaileak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (APAPEL) 47. artikuluan ezarritakoetako batzuk aipatzen ditu. Hala ere, Kontseiluak uste du, berrikuspena eskatzeko idazkia aztertzean, kausa horiek guztiak batean laburbildu behar direla: enpresa adjudikaziodunak ez zituen betetzen adjudikazioduna izateko funtsezko baldintzak, ez baitzuen kaudimen ekonomiko eta teknikorik (APAPELaren 47.1.f artikulua, KPFLaren 116.1.b artikuluari lotuta).

Araudiak eskatzen du lizitatzailleek kontratatzeko kaudimen ekonomiko eta tekniko nahikoa dutela egiaztatzea, , eta kontratazio-organoak baldintza-agirietan ezarri beharko ditu baldintzak eta horiek egiaztatzeko moduak. Baldintza-agiri horiek «kontratuaren legea» dira, eta nahitaezkoak dira guztientzat. Kasu honetan, urteko kontuak, gutxieneko fakturazioa eta antzeko lanen ziurtagiriak eskatzen ziren. Hala ere, enpresa adjudikaziodunak ez zituen baldintza horiek behar bezala egiaztatu, eta, beraz, prozeduratik kanpo utzi behar zen. Horrek esan nahi du adjudikazio-egintzaren deuseztasun-kausa bat dagoela.

Hala eta guztiz ere, Kontseiluak aztertu du ea ofiziozko berrikuspena egin behar den, legezko mugak kontuan hartuta. Puntu honetan, nabarmendu du legezketasun-printzipioa lehenetsi behar dela segurtasun juridikoaren printzipioaren gainetik. Berrikuspenaren helburua ez da bakarrik deuseztasuna deklaratzeko, baizik eta eskatzailearen egoera juridikoa berrezartzea. Hala ere, baliteke lehengoratzeko hori eraginkorra ez izatea edo beste printzipio juridiko garrantzitsu batzuei eragitea, eta, horregatik, interesak lehenetsi behar dira.

APAPELaren 110. artikulua ezartzen duenez, ofiziozko berrikuspena ezin izanen da gauzatu, baldin eta, denbora igaro delako edo beste inguruabar batzuk gertatu direlako, ekitatearen, fede onaren edo partikularren eskubideen aurkakoa bada. Aztertutako kasuan, ia lau urte igaro dira adjudikaziotik deuseztasun-eskaerara arte, eta kontratua guztiz gauzatu da; beraz, berrikuspenak ez du ondorio praktikorik.

Gainera, eskatzailearen jokabidea baloratu da; izan ere, hasieratik zekien akatsak egon zitezkeela , baina ez zituen epe barruan erabili zegozkion errekursoak. Jarduerarik ezak indartu egiten du denbora-mugaren aplikazioa, eta fede onaren aurkakotzat jotzen da, berrikuspenaren erabilera instrumentala iradokitzen baitu.

Ondorioz, deuseztasun-kausa egon arren, Kontseiluak ondorioztatu du ez dela bidezkoa egintzaren deuseztasuna deklaratzeko, ezta eskatutako kalte-ordaina ematea ere, legezko mugak lehenetsi behar baitira ofiziozko berrikuspenaren gainetik.